

Gerra Handia eta Jacques Tardiren parabola artistikoa

PARISEKO Colonel Fabien plazan dago Frantziako Alderdi Komunistaren Egoitza. Airean astindutako banderaren forma hartzen duen kristalezko eraikuntzaren oinetan, harrizko zoruan irekitzen den zuloaren eskailerek bunker baterako sarrera iragartzen dute. Egilearen omenean bataiatua, Oscar Niemeyer izeneko espazioan gaude.

Sugearen bihurrikeriari jarraituz, harrizko hormetan markotan ipinita ageri dira Jacques Tardiren (Valence, 1946) lanaren jatorrizko laginak; zirriborro txuri beltz ia sinbolistetatik, sei urteko amesgaizto baten errealitate koloreztatura egiten dugu salto. Soldadu frantses baten ikuspegitik Lehen Mundu Gerraren garapena urtez urte kontatzen duen komikia da Tardiren *Putain de Guerre!* (Casterman, 2008), Oscar Niemeyer espazioan publikoari zabalik egon dena, maiatzaren 15etik ekainaren 20era bitartean.

Lehen Mundu Gerraren mendeurrenaren aitzakiaz idazten dugu. Baina Tardi bezalako intelektualek ez dituzte 1914-1919 urte bitartean izan ziren 63 milioi biktimen *in memoriam*-erako soilik sortzen beren artelanak. Horretarako baditugu mundua gidatzen duten agintariak. Egutegian markaturik ditugun data esanguratsuetan biltzen dira, mende zein urte batzuk atzerago gertatutakoaz hausnartzearen itxura egiteko.

Gerra pentsatzea ez da gaur egungo auzia. Baina diskurtso bakezaleak hitzetik hortzera darabiltzaten txontxongilo horien bestaldean, Bertolt Brecht, Sigmund Freud, Jean Giraudoux, Franz Kafka, Franz Rosenzweig eta Walter Benjamin bezalako idazle eta pentsalariak izan behar ditugu



gogoan. Pertsona ospetsu hauek, XIX mende amaieran, ontologia belizistan egituratuta zegoen mendebaldeko gizartearen kodeak identifikatu zituzten. Zoritzarrez, Historiak berak frogatu bezala, intelektual eta pentsalarien katastrofeak aurreikusteko gaitasunak nahiz beraiek saihestera bideratutako esfortzuek ez zuten ezertan lagundu. Lehen eta Bigarren Mundu Gerrak, diktadura faszistak, Espainiako Gerra Zibila eta, hurbilago ditugun beste zenbait aipatzearen, Irakeko gerra, Dorre Bikien atentatua edo Crimeako gertakariak, bizi dugun deshuminazioaren froga dira. Eta XXI mendean gaudelarik Gerraren aurka pentsatzen eta idazten jarraitzen dugu. Zergatik baina? Memoriarekin ez al dugu nahikoa? Baliteke oroitzeko prozesu horretan zerbaitetan huts egin izana.

Jacques Tardiren lana ikusi eta irakurri ondoren, Jean Giraudoux (1882-1944) eta bere antzerki lan handienetakoa *La guerre de Troie n'aura pas lieu* (1935) etorri zait gogora. Piezaren data eta izenburuari

erreparatuz gero, Bigarren Mundu gerraren ataritan, Homerok idatzirik utzi zigun gerra historiko baten aurkako formulazioarekin dator Giraudoux. Probokazioa agerikoa da. Eta Tardiren *Putain de Guerre!* lanari batuta, gerrari gerra deklaraztea bezalatsu.

Gisa honetako idazle eta pentsalariak, eta bide batez Manuel-Reyes Mate filosofoa (Valladolid, 1942) aipatzeari ezinbestekoa deritzot, memoria ulertzeko ikuspegi bera dute, prozesu erreflexibo konplexu batetik sortua. Memoria, iragana, oraina eta etorkizunaren arteko fusio moduan ulertua da, non hildakoen oroimen hutsa baino, ekin-tza aktiboagoa eskatzen duen. Tardi bezalako intelektualen lan baten aurrean gaudenean, inguratzen gaituenarekiko arduraz jabetzeko kontzientzia pizten zaigu.

Gizakiak debekatua du historiari bizkarra ematea, eta orain bizi duguna zorigaitz aldaezina balitz bezala hartzen badugu, ezer ikasi ez dugunaren seinale. Oroitzea zergatia bilatzea da eta, era berean, gertakarien norabidea aldatu ahal izan zitekeela imaginatzea. Saihestu ahal izan genuen Lehen Mundu Gerra? Baliteke. Baina iragana beste modu batera pentsatzearekin, aukera berri bat eskaintzen diogu orainari. Horrek esan nahi du, iraganeko birformulazio horretan bizirauten duen orainaren esperantza dela etorkizunaren proiektzioa.

Lehen Mundu gerra saihestu zitekeen bezala, etorkizuneko edozein gerra saihestera bideratu behar ditugu gure indarrak. Lortu edo ez. Nolanahi ere, porrota gizakiaren berezko ezaugarria dela onarturik, Historiaren norabidea aldatzeko aukera gure esku dago.

Putain de Guerre! ahozkotasanari lotua zaion espresioa da, denok aldarrikatu beharrekoa, eta komikian barrena soldadu narra-tzailearen ahotan behin eta berriz topatzen duguna. Irudiak eta hitzak era zoragarrian konbinaturik, gehienetan aurpegia eta ifrentzua adierazten dutela, helburu jakin bat dute: Lehen Mundu Gerrak gerra guztien parabola izan nahi du. Gerra orenen absurdua erakusteko bide artistikoa, alegia.

Estatuak ohorezko ekintza bailitzan saltzen digu gerra, jada Homerori aurkitzen diogun



heroismoaren kontzepzioan. Tardiren protagonista, alderantziz, gai da berak eta bere lagunek lubakietan zain duten heriotza aurreikusteko. Jaio izana gaitzesten du, bera bezalakoak direnak hil behar dituelako aberriaren alde. Zentzu horretan, etsaiaren kontzepzioa, bere irudikapena, aleman gisara definitzen du, aurrez aurre topo egiten dutenean, egoeraren absurduaz jabeturik, fusila jaitsi eta bizkarra emango diote elkarri. Nazionaltasunaz gairi, gizatasunaz hausnartu dute biek. ■

Saioa Ruiz
Gonzalez

